

EUSKARAREN NORMALKUNTZA UNIBERTSITATEAN

Xabier Isasi

EHU/UPVko irakaslea

Bada garaia euskararen normalkuntzari heltzeko Euskal Herriko unibertsitateetan. Izan ere, unibertsitateak badu eduki berebiziko garrantzia euskararen berreskurapenean, ez, soilik, erakunde horiek duten eragin sozialagatik, baizik eta hizkuntza alorrean eremu sortzailea eta berritzailea delako. Are gehiago, unibertsitatean normalkuntza arloan ematen diren urratsak koalitatiboki beste edozein sektoretan baino garrantzitsuagoak dira, unibertsitatean goi mailako hizkuntza funtzioak garatzen direlako alegia.

Edozelan ere, *euskararen normalkuntza* nola ulertzen dugun argitu behar dugu. *Euskararen normalkuntza*, euskararen erabilera edozein hizkuntzari dagozkion esparrutara hedatzeko prozesu bat da, esparru horietan ohiko hizkuntza bilakatzea hain zuzen ere. Euskararen egoera dela eta *normalkuntzarako plangintza* ezinbestekoa da. Ekimen arautua, bateratua eta iraunkorra izatea prozesuaren arrakastaren gakoa da. Horretan datza *plangintza*. Plangintza berez, mailakatua eta tokian tokirako egokitua bada ere, ez da bere horretan agortzen goren mailako helburua lortu arte.

Prozesu bezala ulerturik *euskararen normalkuntzarako plangintzak* gizarte eragile guztien esku hartzea eskatzen du. Horrek ez du adierazten erantzule zuzenik ez dagoenik. Plangintzak berak zehaztu behar du urrats eta alderdi bakoitzean zein nor den erantzulea eta zeintzuk erantzukizun

dagozkion. Besterik gabe, plangintza indarrean dagoenean edo plangintzarik ez dagoenean erakundearen arduradunak dira normalkuntza proiektuaren erantzuleak.

Euskal Herriko unibertsitateen artean, UEUren kasua aparte utzirik, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitate publikoa (UPV/EHU) izan da euskarari arreta gehien eman diona. Bai hizkuntza eskubideak arautzerakoan (UPV/EHUko Estatutuen VIII. titulua), zein eskubide horiek gauzatzeko ahaleginetan, irakaslearen kontratazioan eta *euskal lerroaren* garapenean hain zuzen ere. Euskal Herriko gainontzeko unibertsitateetan, publiko zein pribatuetan, euskararen aldeko ekimen instituzionalak hutsaren hurrenak direla esan daiteke, sarri egiten direnak maila pertsonalean geratzen dira eta.

Egoera horretan UPV/EHUn egiten dena, eta egiteke dagoena, euskararen normalkuntza Euskal Herriko unibertsitateetan zertan den jakiteko argigarria da. Izan ere, Nafarroan bertan UPV/EHUri begira baitaude normalkuntzaren alde urratsak emateko. Dagoeneko, nahikoa ezagutzen dugu egoera. Joan den 1995eko azaroan Euskal Elkarte Autonomoko unibertsitate publikoaren Gizarte Kontseiluak IKEI-k buruturiko EHU/UPV-ren *Egoera Soziolinguistikoa* argitara eman zuen. Txosten horretan UPV/EHUn azterketa soziolinguistikoko zabala eta sakona egiteaz gain zenbait ondorio eta iradokizun interesgarri ezagutarazten dira. Tamalez guk dakigularik, txostenak ez du hedapen handirik izan. Horregatik han idatziak hona ekarri ditugu.

Esandako txosteneko ondorio guztiak hona ekartzeak luzeegi joko luke-elarik, zenbait ataleko azpimarragarrienak ekarten ditugu. Dakartzizuegunak gure aburuz jakina, interesgarrienak dira.

IRAKASLEGOAZ

a) IRAKASKUNTZAREN ESKAINTZA UPV/EHU-AN

.../...

8. UPV/EHUko 3.200 irakasleetatik, guztira 618 kontabilizatzen dira (hau da, bosten bat, %20), euskarazko irakaskuntza ematen dutenak. Berriz ere indizerik handiena Gipuzkoako Campusean ageri da (% 31, 238 irakasle euskaldun) .../... Bizkaikoak .../... (301 irakasle, ... %16) .../... Araba ... (79 irakasle, %12,8). Garrantzizkoa da adieraztea irakasleria elebidunaren ia %40 sartzen dela irakasle atxiki kategorian (% 30,3 lizentziatu eta % 8,6 doktore).

9. Irakasle horien heren bat baino zerbait gehiago 1990az geroztik kontratatatu ziren, beren irakaskuntza euskaraz emateko kontratuzko konpromisoarekin .../... Irakasleriaren euskalduntze-indizea zentzu hertsian %7 ingurura jaisten da.

10. Irakasle elebidunak 17.181 kredituko irakasmen teorikoa du eta horrek UVP/EHUaren baitako hezkuntza-eskaintzako irakasaiek adierazten dituzten kreditu guztiekiko, %50 inguruko estaldura-tasa (hori ere teorikoa) esan

«Bada garaia euskararen normalkuntzari heltzeko Euskal Herriko unibertsitateetan. Izan ere, unibertsitateak badu eduki berebiziko garrantzia euskararen berreskurapenean, ez, soilik, erakunde horiek duten eragin sozialagatik, baizik eta hizkuntza alorrean eremu sortzailea eta berritzailea delako»

«Euskararen normalkuntza, euskararen erabilera edozein hizkuntzari dagozkion esparrutara hedatzeko prozesu bat da. Euskararen egoera dela eta normalkuntzarako plangintza ezinbestekoa da. Ekimen arautua, bateratua eta iraunkorra izatea prozesuaren arrakastaren gakoa da. Plangintza berez, mailakatua eta tokian tokirako egokitua bada ere, ez da bere horretan agortzen goren mailako helburua lortu arte. Euskararen normalkuntzarako plangintzak gizarte eragile guztien esku hartzea eskatzen du. Plangintza indarrean dagoenean edo plangintzarik ez dagoenean erakundearen arduradunak dira normalkuntza prozesuaren erantzuleak»

nahi du. Irakasgai eta kredituen ratioa (ikasketa-planen hezkuntza-eskaintza) irakasleko 2,8 irakasgaikoa da eta 24,8 kreditukoa euskaraz irakasten dutenentzat; aldiz, UPV/EHUarentzat ratio orokorra 1,1 irakasgaikoa da eta 11,3 kreditukoa irakasleko. Ratio horrek ez ditu kontuan hartzen ez kreditu osagarriak talde bat baino gehiago egotetik sortuak, ezta taldeak batzetik deskontatu beharko liratekeenak ere.

Informazio horren argitan nabarmena da euskaraz diharduen irakasle-goaren egoera oso desorekatua dela, irakaslego elebidunak, batenaz beste, erdaldunak baino lan handiagoa egin behar baitu; eta hori, euskararen egoerak dakarren lan eskergak kontuan hartu gabe. Irakaslego elebiduna honela deskribatuko genuke: irakaslego gazteena, formakuntza prozesuan abiatu berria, lan baldintzarik eskasenetan eta, gainera, gainontzeko irakasleek baino gehiago lan egin behar duena. Ez da samurra. Dударik gabe, normalkuntza helburua bada, irakaslegoaren egoera errotik aldatu beharra dago.


Hori guztia nolanahi, orain dela hiru urteko egoera zen, orain 1996-97 ikasturtean, gauzak ez dira askoz gehiago hobetu. UPV/EHU euskararen normalkuntzarako lehenengo plangintza 1990ean ezarri zen, bost urtetarako, orain dela gutxi berriz, bigarren plangintzaldirako zirriborrea ezagutzea eman izan da. Zabaldutako zirriborro horretatik ikaslego elebidunaren bilakaera aztertu dugu. Hona bada, datuak eta horien irakurketa.

I. Taula: Irakasle elebidunen bilakaera (Bigarren plangintzaldirako zirriborrea 3. or.)

Ikasturtea	U.K.	U.E.K.	U.T.	U.E.T.	Asoz.	Totala
91/92	6	5	52	92	208	363
92/93	9	5	68	97	302	481 (%32,51+)
93/94	11	5	91	139	340	586 (%21,83+)
94/95	13	7	123	169	308	620 (%5,80+)
95/96	14	6	173	145	348	686 (%10,65+)
96/97						727

Taulan, azkeneko bost ikasturteotako UPV/EHUren irakaslego (elebidunaren) mota desberdinen bilakaera agertzen da. Datu horiekin baliatuz hurrengo irudia eraiki dugu:


UPV/EHUko irakaslego elebidunaren bilakaera



1. Irudia: Irakaslego elebidunaren bilakaera.

UPV/EHU, Espainiako gainontzeko unibertsitate publikoetan antzera, irakaslegoa funtzionari gisa ulertzen da, lau kategorietan banatuta hain zuzen: Unibertsitateko Katedraduna (UK), Unibertsital Eskolako Katedraduna (UEK), Unibertsitateko Titularra (UT) eta Unibertsital Eskolako Titularra (UET). Funtzionari ez den kategoria bakarra Irakasle Asoziatua da (Asoz.), izaera administratibo duen kontratupean aritzen den irakaslea alegia. Aurreko irudian argi ikusten da azken kategoriako irakaslego hori irakaslego elebidunaren gehiengo dela. Azken buru, datu berriak ikusirik, lehen esan dugun gauza bera berrestera gatzoz: irakaslego elebiduna, irakaslego gazteena, formakuntza prozesuan abiatu berria eta lan baldintzarik eskasenetan dagoena da.

Bost ikasturteotan irakasle elebidun gehiago badago ere, bere barreneko banaketan aldaketa esanguratsurik ez da gertatu. Ikus dezagun:



2. Irudia: Irakaslego elebidunaren banaketa.

«Euskal Herriko
unibertsitateen artean,
UEUren kasua aparte
utzirik, Euskal Autonomi
Elkarteko unibertsitate
publikoa (UPV/EHU) izan
da euskarari arreta
gehien eman diona.
Gainontzeko
unibertsitateetan, publiko
zein pribatuetan,
euskararen aldeko ekimen
instituzionalak hutsaren
hurrenak direla esan
daiteke. Joan den 1995eko
azaroan Euskal Elkarte
Autonomoko
unibertsitate publikoaren
Gizarte Kontseiluak
IKEI-k buruturiko
EHU/UPV-ren Egoera
Soziolinguistikoa
argitara eman zuen.
Esandako txosteneko
ondorio guztiak hona
ekartzeak luzeegi joko
lukeelarik, zenbait
ataleko
azpimarragarrienak
ekarten ditugu»

Funtsean, oraindik ere, euskarazko irakaskuntzaren oinarria irakaslego asoziatua da. Titularren artean, Unibertsital Eskolako Titularra izatetik Unibertsitateko Titularra izateko joera antzematen da. Itxuraz, azkeneko urteotan fakultateetan izaera elebiduneko titularrak areagotzen ari dira eta, horrek azalduko luke behatutako aldaketa.

Irakaslego elebidunaz, oro har, definizio eza azpimarratuko genuke. Begi bistakoa da, unibertsitateko irakasleen artean bazterrekoak direla baina talde izaera lortu gabe. Gehiengo asoziatuak izaki, administratiboki gaizki daude, beraien ordezkaritza ikastetxeetako (fakultate batzarrak, etab.) zein unibertsitateko goren organoetan (claudio, gobernu batzarra, etab.) oso mugatua da (gehiengo badiara ere, edozein kasutan kontratatuei gehienez hautetsien % 12 dagokie). Alderdi horretatik ere, bada, irakasle elebidunak direnek baino askoz gutxiago eragin dezakete. Unibertsitate espainolaren egitura hierarkiakoak haien errealitatea agertaraztea galarrastzen baitie. Azkenik, sailetan, fakultateetan, eskolatan eta campusetan, irakasle elebidunen sakabanaketa aipatu beharra dago; UPV/EHUko ikastetxe gehienetan euskara batzorde eta euskararako dekanorde eta ardura-dun badago ere, irakasle elebidunen artean ez dago inolako lotura organikorik. Nor bere sailean eta bere ikastetxean erdaldunen artean murgildurik dago.

Horiek horrela, ez da harritzekoa egiten diren ahaleginak (tesiak, titulartateak, ikasketa planak, ikerketa proiektuak, argitalpenak, etab.) gehienetan maila pertsonalean egin izatea. Irakasle *elebidunek* ez daukate inolako taldetasun kontzientziarik, banakakotasuna da nagusi. Izenak berak —*irakasle elebiduna*— garbiki adierazten du bikoiztasun nahasgarria. Antza denez, *irakaslego euskalduna* izendatzea estuegi lotzen zaio *irakaslego propioaren* eskakizunari eta hori, jakina denez, UPV/EHUK *de facto* ukatutako irakaslego mota da.

IKASLEGOAZ

Aurreko atalean irakaslegoaz erabilitako antzeko hizpidea ekarriko dugu hona. Batetik IKEI-k buruturiko EHU/UPV-ren Egoera Soziolinguistikoa txostenetik ateratako hainbat datu eta gogoeta bere horretan ekarriko ditugu. Bestetik iturri desberdinetatik jasotako datuak eta, horien argitan, gure gogoetak idatziko ditugu. Hasteko esan dezagun, *euskal ikaslegoa* oso errealitate zabala dela (10.000 baino gehiago UPV/EHUn) eta gainera, errealitate agerikorra. Hau da, ikasturtez ikasturte abiada bizian hazten den ikaslegoa da; oztopoz oztopo eta trabaz traba, hiru ikasturtetan UPV/EHUn kopuruz **bikoiztu den ikaslegoa** ari gara.

Hona bestela, Gizarte Kontseiluaren txostenean esaten dena:

b) UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZAREN ESKARIA EUSKARAZ

.../...

17. Euskarazko unibertsitate-irakaskuntzaren etorkizuneko eskaria maila di-

ferenteko bi faktoreen bilakaeraren emaitza izango da: alde batetik, EHAEan unibertsitate-hezkuntzaren eskariak izango duen bilakaerarena (hizkuntza kontuan hartu gabe), edo hobeto esateko, UPV/EHUak atzemandako unibertsitate-ikasleriaren bolumen orokorrarena, eta bestetik, ikasleria horren euskalduntzeak denboran zehar izango duen aldaketa-mailarena, hau da, euskaraz bere ikasketak egin nahi dituen ikasleria horretako proportzioarena.

18. Lehen faktoreari dagokionez, demografi proiektzioek argi eta garbi erakusten dute unibertsitate-adineko biztanleriak berehala ekingo diola behera egiteari, eta datozen hamar urteetan gutxienez horrela iraungo duela. Nahiz eta hobekuntza garrantzizkoa lortu UPV/EHUko unibertsitate-eskolaketa tase-tan (gaur eguneko tasa ia bikoiztuz hamar urteko epean), horrek Unibertsitateko ikasleriaren murrizketa ekarriko du.

19. Hobekuntza horren izango duen zenbateko eta bizkortasunaren arabera, aurrikusiriko murrizte hori erdi-epera edo epe luzera gertatuko da: 2.000-01 ikasturterako EHUko ikasleria 47.000 eta 60.000 ikasle bitartekoa izan daiteke, egingo den atzemate-ahaleginaren arabera; 2.005-06 ikasturterako, zifra 42.000 eta 50.000 ikasleren artean mugituko dira, nolana ere gaur eguneko ikasleriaren azpitik.

20. Euskarazko irakaskuntzaren eskariaren balantzearen bestaldetik, arriskugarria da unibertsitate-euskalduntzearen tasen gehitze nabarmen bat, gorago agerian jarri denez. Ikasle euskaldunen eta euskarazko irakaskuntzaren eskatzaile potentzialen proportzioa % 27raino igo liteke bost urteko epean ia % 35eraino hamarrekotan.

21. Bi faktore horiek uztartuz (ikasleria orokorraren murriztea eta bere euskalduntzearen gehitzea) bi hipotesi planteatzen dira. Lehenean ikasle euskaldunen kopurua gehitu egingo litzateke epe laburrean gero pixkanaka urritzeko 2.000-01 ikasturtera arte (eskari garbiko 11.000 ikasle) ikasleek orokorrean behera egingo dutelako; baina gero gehitu egingo lirateke 2.005-06an 12.000 baino gehiago izateraino (euskalduntzea gehitzeak konpentsatu egiten du ikasleriaren beheratze orokorra). Bigarren hipotesian, halere, eskariaren gehikuntza jarraitua izango litzateke, lehen bosturtean ikasleen bolumena orokorraren mantenimendua eta berorien euskara-maila hobea uztartzean (ia 14.000 ikasle 2.000-01) eta ia 15.000 2005-06, termino garbitan).

Honaino UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak agindutako ikerketaren emaitza batzuk. Berez adierazgarriak badira ere, gure ustez IKEIren aurreikuspenak euskal ikaslegoaren hazkuntzari dagokionez nahiko kontserbadoreak dira. Egia da urriketa demografikoa unibertsitatara heltzeaz dagoela baina egia ere bada unibertsitatara doazen gazteen proportzioa ikasturtez ikasturte gero eta handiagoa dela. Azkeneko bi ikasturte hauetan UPV/EHUen euskal lerroan matrikulatutako ikasle kopuruak hazte joera adierazten du harik eta txostenean aurrikusitakoa gainditzearaino. Gogoan izan UPV/EHUK euskal lerroko balizko ikaslegotik erdia ozta-ozta jasotzen duela (EUSTAT unibertsitate irakaskuntza eta euskara 1994).

Unibertsitatea hezkuntza sistemaren erpina delarik bigarren hezkuntzako

«Euskaraz diharduen irakaslegoaren egoera oso desorekatua dela, irakaslego elebidunak, batenaz beste, erdaldunak baino lan handiagoa egin behar baitu. Irakaslego elebiduna, irakaslego gazteena, formakuntza prozesuan abiatu berria eta lan baldintzarik eskasenetan dagoena da»

«Euskarazko irakaskuntzaren oinarria irakaslego asoziatua da. Gehiengoa asoziatuak izaki, administratiboki gaizki daude, beraien ordezkaritza ikastetxeetako zein unibertsitateko goren organoetan oso mugatua da. Unibertsitate espainolaren egitura hierarkiakoak haien errealitatea agertaraztea galarazten baitie. Saitetan, fakultateetan, eskolatan eta campusetan, irakasle elebidunen sakabanaketa aipatu beharra dago. Irakasle elebidunek ez daukate inolako taldetasun kontzientziarik Antza denez, irakaslego euskalduna izendatzea estuegi lotzen zaio irakaslego propioaren eskakizunari eta hori, jakina denez, UPV/EHUk de facto ukatutako irakaslego mota da»

ikaslego zati handi baten berezko helburua da. Pentsatzea UBIn gertatzen den A/D ereduaren banaketa unibertsitatekar daitekeela oker bat da. Hezkuntza sisteman behatzen den euskararen berreskurapen prozesuan, bereziki EAEn, *enbutu efektua* antzeman daiteke. Ez, bakarrik euskal lerroko matrikulatuen abiada biziko hazkuntzan baita euskal ereduetaiko hezkuntzak erakusten duen errendimendu hobean ere (EUSTAT *Unibertsitate irakaskuntza eta euskara* 1994). Egoera berezi horrek unibertsitatea normalkuntza prozesuaren giltzarri bilakarazten du datozen urteotan. Unibertsitateak erronka horri eusten badio, normalkuntzak, bere adierarik zabalenean, jauzi kualitatiboa emango du. Kale egiten badu ostera, atzerapauso ikaragarria izan daiteke. Izan ere, euskararen *corpusa* lantzeko, hizkera tekniko eta lan mundukoa sortzeko, unibertsitatearen ekarpena erabakiorra da; are gehiago, unibertsitatearen eskuetan dago gaitasun eta prestasun handiko hiztunak formatzea. Zenbat eta gaitasun handiagokoak eta zenbat eta gehiago izan gizartean eta lan munduan orduan eta eragin emankorragoa izango da. Eskaintza urria eta kalitatez erdipurdikoa izango balitz ordea, ikasle euskaldunak gazteleraren hautua egingo du bere prestakuntza eta lan aukerak auzian daudelako. Horrela, euskararen hizkuntza komunitateak sekula ez luke lortuko behar dituen goren mailako profesional horiek, ez bederen, kopuru esanguratsuetan, eta, orain gertatzen den lez, goren mailako prestakuntza instituzioen ardura baino maila pertsonala eta ekimen militantearen esku geratuko litzateke.

Darabilgun informazioa osatzeko eta esaten duguna berresteko hurrengo orrialdean joan diren 92-93, 93-95 eta 94-95 ikasturteetako datu xeheak aurkezten dizkizuegu. Taula horretan ikastetxez ikastetxe eta ikasketen izaeraren arabera (esperimentalak, osasun zientziak, gizarte zientziak eta giza zientziak) erdara eta euskara hautatu dutenen banaketak agertzen dizkizuegu. Oro har, euskal lerroa giza eta gizarte zientzietako adar gisa har daiteke eta hutsunerik lazgarriena berriz, osasun zientzien alorrean antzematen da.

1992-93 ikasturtea				1993-94 ikasturtea				1994-95 ikasturtea									
Gaztelera		Euskara		Banaketa		Gaztelera		Euskara		Banaketa		Gaztelera		Euskara		Banaketa	
	N	N	%	G	E	N	%	G	E	N	%	G	E	N	%	G	E
Ikasketa moten arabera																	
Meatz Ing.Tek.	692	0	0	4,13	0	1.121	0	6,15	0	1133	0	6,15	0	1133	0	6,15	0
Zientziak	3.978	439	9,92	23,77	29,90	4.139	528	11,31	22,73	34,11	4186	656	13,55	4186	656	13,55	32,25
Kimika	537	212	28,30	3,20	14,44	565	235	29,38	3,10	15,18	572	253	30,67	572	253	30,67	12,44
Informatika	1.051	149	12,42	6,27	10,15	990	150	13,16	5,44	9,69	1001	188	15,81	1001	188	15,81	9,24
Arkitektura	847	0	0	5,05	0	1.060	0	5,82	0	1072	0	5,82	0	1072	0	5,82	0
Industri eta Telek.	3.498	81	2,26	20,86	5,52	3.788	82	2,12	20,80	5,30	3830	131	3,31	3830	131	20,79	6,44
Ing. Tek. (Araba)	1.332	57	4,10	7,94	3,88	1.303	55	4,05	7,15	3,55	1317	68	4,91	1317	68	7,15	3,34
Ing. Tek. Ind. E (Gipuzkoa)	1.649	194	10,53	9,83	13,22	1.681	215	11,34	9,23	13,89	1701	297	14,86	1701	297	14,86	14,60
Ing Tek. Esk. (Bizkaia)	1.872	96	4,88	11,16	6,54	2.158	83	3,70	11,85	5,36	2184	140	6,02	2184	140	11,86	6,88
Arte Ederrak	1.307	240	15,51	7,79	16,35	1.408	200	12,44	7,73	12,92	1425	301	17,44	1425	301	7,74	14,80
Ikasketa Esperimentalak																	
Farmazia	805	0	0	19,68	0	908	13	1,41	24,12	16,88	918	7	0,76	918	7	24,13	5,47
Medikuntza	2.166	60	2,70	52,95	100	1.810	64	3,42	48,09	83,12	1830	81	4,24	1830	81	48,09	63,28
Erizaintza	740	0	0	18,09	0	709	0	0	18,84	0	716	11	1,51	716	11	18,82	8,59
Erizaintza (Gipuzkoa)	380	0	0	9,29	0	337	0	0	8,95	0	341	29	7,84	341	29	8,96	22,66
Osasun Zientziak																	
Ekonomia Enpr. Zientziak	6.379	406	5,98	33,71	19,37	6.345	426	6,29	33,50	20,67	6419	701	9,85	6419	701	33,50	24,89
Psikologia	1.186	188	13,68	6,27	9,06	1.444	200	12,17	7,62	9,70	1461	356	19,59	1461	356	7,63	12,64
Informazio Zientziak	4.404	806	15,47	23,27	38,84	4.889	825	14,44	25,82	40,03	4946	912	15,57	4946	912	25,81	32,39
Enpresa Unib. Esk. (Bizkaia)	2.777	101	3,51	14,67	4,87	2.680	116	4,15	14,15	5,63	2711	144	5,04	2711	144	14,15	5,11
Enpresa Zientz. (Gipuzkoa)	1.522	298	16,37	8,04	14,36	1.358	300	18,09	7,17	14,56	1374	439	24,21	1374	439	7,17	15,59
Lan Harremanak Gizarte	2.657	278	9,41	14,04	13,30	2.222	194	8,03	11,73	9,41	2249	264	10,51	2249	264	11,74	9,38
Gizarte Zientziak																	
Filologia-Geo/Hist.	1.343	547	28,94	19,34	32,72	1.411	507	26,43	17,87	30,12	1426	493	25,69	1426	493	17,86	19,74
Zuzenbidea	4.003	435	9,80	57,66	26,02	3.855	508	11,64	48,83	30,18	3900	658	14,44	3900	658	48,85	26,34
Filosofia eta HZZ	641	159	19,88	9,23	9,51	932	137	12,82	11,81	8,14	943	246	20,69	943	246	11,81	9,85
OHO Irak. Eskola (Araba)	194	21	9,77	2,79	1,26	449	21	4,47	5,69	1,25	454	269	37,21	454	269	5,69	10,77
OHO Irak. Esk. (Gipuzkoa)	227	262	53,58	3,27	15,67	307	262	46,05	3,89	15,57	310	412	57,06	310	412	3,88	16,49
OHO Eskola (Bizkaia)	535	248	31,67	7,71	14,83	940	248	20,88	11,91	14,74	950	420	30,66	950	420	11,90	16,81
Giza Zientziak																	
Guztira	6.943	1.672	19,41	14,86	31,70	7.894	1.683	17,57	16,17	31,35	7.983	2.498	23,83	7.983	2.498	16,17	33,41
	46.731	5.275	10,14	100	100	48.809	5.369	9,91	100	100	49.369	7.476	13,15	49.369	7.476	100	100

«Euskal ikaslegoa oso errealitate zabala dela (10.000 baino gehiago UPV/EHU) eta gainera, errealitate agerikorra.

Hau da, ikasturtez ikasturte abiada bizian hazten den ikaslegoa da»

1990EKO PLANGINTZALDIAREN EMAITZAK

UPV/EHU euskararen normalkuntzarako bigarren plangintzaldiaren atarian dago. Aurreko plangintza 1990ekoa izan da. Ohikoa ez bada, kome-nigarri deritzogu aurreko plangintzaren ekarpenak (ekarpen eza?) azter-tzeari. Honetan ere, gure iritzia baino lehenago UPV/EHUko Gizarte Kon-teiluak argitaratutako txostenaren hitzak dakartzkizuegu.

c) ESKAINTZA ETA ESKARI KONTRASTEAK

.../...

24. Baldin eta konparaketa bat egiten bada UPV/EHUko irakaskuntzako gau-rko euskalduntze-egoeraren eta 1990eko Normalkuntza Planak markaturiko helburuen artean (titulazio desberdinei hizkuntz eredu-sail bat esleituaz, ze-i-nen arabera irakasgai jakin batzuk euskaraz irakatsi beharko ziren bost urte-ko epean), Planarekiko irakasgaien %42ko eta kredituen %47ko desdoikuntza sortzen da. Zifra absolututan, horrela 1.000 irakasgai baino gehiago kuantifi-katzen dira (hamarretik 4) eta 11.000 kreditu (hamarretik ia 5).

25. Ikasketa-arloen arabera, egoerarik txarrenea Irakaskuntza Teknikoetan dago, izan ere horietako irakasgaien %17an bakarrik bete baitira markatutako hel-buruak. .../...

Argi dago 1990eko plangintzak porrot egin zuela. Zergatik? Gure ustez, plangintzaren ildo nagusia zuzena zen. Hau da, euskarazko irakaskutza osatu artean jarraikortasunean oinarritutako plangintzak egitea. Era be-rean, ez dugu uste 1990eko plangintzak gehiegizko helburuak ezarri zi-tuenik. Diseinu arazoa zela uste dugu; behar ziren baliabideak eta bitar-tekoak aintzat ez hartzea eta lehentasunak eta erritmoak behar beste finka-tu ez izatea.

Arazoa oster, orain bigarren plangintzaldiari begira egiten den oinarri-zko proposamenak 1990eko helburuak baino xumeagoak ezartzea dakarre-la. Atzerapauso ukaezina. Beste era batera, 1990ean baino baldintza ob-jketibo askoz hobeak diren honetan (irakasle *elebidun* gehiago, espe-rientzia handiagokoa, ikasle gero eta gehiago eta gero eta *kalitate* handia-gokoa) normalkuntza bilatu beharrean **lortutakoa deusestatzea** proposa-tzen da. Hurrengo plangintzaren egitasmoan inplizitoki baino ageriagoan **euskal lerroaren desagerpena** proposatzen da. Ikus dezagun bestela, aur-keztutako zirriborroan esaten dena:

Ikasleei dagokienez, gaurko euskal adarrak / erdal adarrak bereizketa zorrotzarekin jarraitu behar den ala ez aztertu beharko da. Nire iri-tziz, irakasgaiak euskaraz eta erdaraz eskaintzea lortu beharko ge-nuke, baina hizkuntza-aukera zabalik utziz. Hau da, era guztietako aukerak eman beharko genizkieke ikasleei: euskaraz (eta euskaraz baka-rrik) ikasi, erdaraz ikasi, edo gai batzuk euskaraz eta beste batzuk er-daraz ikasi. Automatrikula izan daiteke bide egokia horrelako plan-teamentu batek ekarriko lituzkeen oztopo teknikoak gainditzeko. (9. or. Geronek azpimarraturik)

Bildutako informazioaren arabera, zantzu guztiek orain arteko planteamendua errotik aldatu nahi dutela adierazten dute. Hau da, UPV/EHUren Estatutuetan (VIII TITULUA) esaten den ondorengoa:

Unibertsitarietara ondoko eskubideok ezagutzen zaizkie:

a) Edozein hizkuntza ofizialez irakaskuntza jaso eta eskaintzea. .../... (243. artikulua)

2. Unibertsitateak orain arte euskaraz ematen ari den irakaskuntza garrantzitsu egingo du. Irakasgai berriak euskaraz jartzea planen arauera egingo da. .../... (244. artikulua)

Unibertsitateak irakaslegoa hezteko eta horretara bultzatzeko politika hartuko du, denbora epe laburrenean, euskarazko irakaskuntza eta ikerketak lortu ahal izateko. .../... (245. artikulua)

eta aipatzeke geratzen diren beste zenbait beren edukian eta adieran urratutako gertatzen dira.

Hikuntzen arteko asimetria dela zioa, ezarri nahi den liberalismoa askatasuna bermatu baino euskaldunen eskubideen kontrako eraso zorrotza da. Kasurik onenean, euskarazko irakaskuntza erdarazkoaren *subsidiarioa* izango litzateke, bigarren mailakoa alegia. Agintean dagoen Errektoreak eta bere taldeak ezin har dezake bere eskumenen artean euskarazko irakaskuntza ukatzea, bere eginkizuna kontrakoa baita: euskaraz ematen ez den hori ahalik eta laisterren euskaraz ematea ahalbidetzea. Dagoeneko, Euskararako Erretorordetzatik datorren ikasturterako (1997/98) irakaskuntza planetan zeintzuk asignatura eman daitezke euskaraz eta zeintzuk ez adierazten zaie UPV/EHUko sailei. Antza denez, eskolak euskaraz emateko, sail jakin batean baldintza guztiak izanda ere, Errektore Taldearen baimena ezinbestekoa da.

Garenak garelako, UPV/EHUko partaide hain zuzen, artikulua honetan irakurleak soma dezake gure egonezina ezin ezkutatzetik ibili garelako. Datuen azaleko azterketa nahikoa da abagune kritikoan gaudela erdieste-ko. Behintzat, horrela dela uste dugu. Nolanahi ere, artikuluetan sarri aipatutako unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren txostena azken aldian aipagai ekarriko dizuegu:

7.2 ONDORIO ETA AZKEN GOGOETAK

.../...

35. .../... eskariaren bilakaerak, nahiz garrantzitsua izan, ez dirudi funtsezko irizpidea denik euskalduntzeak planteatzen dituen etorkizuneko premiak kuantitatiboki determinatzerakoan, prozesua arau-motako (helburuak) irizpideek areago gidatzen duten heinean.

...)):::

42. Laburbilduz, UPV/EHUko euskalduntze-garapenaren plangintzak helburu-zehazte berri bat behar duela dirudi eskaintzaren hazte pixkanakako eta

«UBIn ematen den A/D ereduaren banaketa unibertsitateara ekar daitekeela oker bat da. Euskal lerroko matrikulatuen abiada biziko hazkuntzan baita euskal ereduaren hezkuntzak erakusten duen errendimendu hobean ere. Egoera berezi horrek unibertsitatea normalakuntza prozesuaren giltzarri bilakazten du datozen urteotan. Unibertsitateak erronka horri eusten badio, normalakuntzak, bere adierarik zabalenean. Izan ere, euskararen *corpusa* lantzeko, hizkera tekniko eta lan mundukoa sortzeko, unibertsitatearen ekarpena erabakiorra da; are gehiago, unibertsitatearen eskuetan dago gaitasun eta prestasun handiko hiltunak formatzea. Zenbat eta gaitasun handiagoak eta zenbat eta gehiago izan gizartearen eta lan munduan orduan eta eragin emankorragoa izango da»

«UPV/EHU euskararen normalkuntzarako bigarren plangintzaldiaren atarian dago. Aurreko plangintza 1990ekoa izan da. Argi dago 1990eko plangintzak porrot egin zuela. Zergatik? Diseinu arazoa zela uste dugu; behar ziren baliabideak eta bitartekoak aintzat ez hartzea eta lehentasunak eta erritmoak behar beste finkatu ez izatea. Orain bigarren plangintzaldiari begira egiten den oinarritzko proposamenak 1990eko helburuak baino xumeagoak ezartzea dakarrela. Atzerapauso ukaezina. 1990ean baino baldintza objektibo askoz hobeak diren honetan normalkuntza bilatu beharrean lortutakoa deusestatzea proposatzen da. Hurrengo plangintzaren egitasmoan inplizitoki baino ageriagoan euskal lerroaren desagerpena proposatzen da»

ordenatu ahalbidetzeko. Alde batetik, ikasketa-planak aldatzeak eta irakasgaien egituratze eta kopuru berriak (lauhilekoan, aukerakoan gehikuntzak eta abarrek) titulazio desberdinei esleituriko hizkuntz ereduak agian birmoldatu beharra planteatzen dute, parametro berrietara egokitzeko.

Neurri handian geure egiten ditugu txostenan esaten direnak. Edozelan ere, ez genuke nahi artikulua honetan deskribapen mailan geratu eta, hiru puntutara bildu nahiko genuke gure iritzia:

1. Azkeneko hiru ikasturteotako ikasle euskaldunen (euskara unibertsitateko hizkuntzatzat hautatzen dutena) hazkuntza abiada handikoa da. Proporzionalki hezkuntza sistemaren edozein sektoretako baino handiagoa da. Datozen urteoteako joera bera edo areagotzea espero da. Euskararen erabilera eta euskarazko irakaskuntza **eskubidea** den neurrian, ikaslegoari dagokio hautatzea ala ez. Unibertsitatea eskubide hori ezagutzeaz gain (Estatutuetan egina da), gauzatzeko baldintzak ezartzea behartuta dago.

2. UPV/EHUko irakaslego *elebidunaren* hazkuntza ez da nahikoa dator-kion erronkari aurre egiteko, ez koantitatiboki, ez kolalitatiboki, irakasle-goaren kalitateari dagokionez. Irakaslego *elebiduna* objektiboki bigarren mailako irakaslegoa da. Alderdi honetan, UPV/EHUK ez du bete bere estatutuetan esaten dena, lehen aipatutako 245. artikulua, eta okerragoa dena, itxuraz ez du betetzeko asmorik.

3. Euskararen normalkuntzarako edozein plangintzak *jarraikortasunaren* printzipioari atxeki behar dio. Abiaturua edozein delarik, *garapen osoa eta eutsigarriari* heldu behar dio. Normalkuntzaren helburua ez da euskaldunen eskubideak ezagutzea, betearaztea baizik. Ildo horretatik unibertsitateak euskaldunei kalitatezko irakaskuntza eskaini behar die eta euskarazko irakaskuntza bultzatu. Azken buru, *Euskal Herriko Unibertsitatea* denak unibertsitateko euskaldunei goren mailako prestakuntza zor die eta, dagozkion euskal titulazioak eman. Hau da, *eman ta zabal zazu*.

EUSKALDUNAK UNIBERTSITATEAN: ZORIZKO EREDUA

Jakina denez, pertsona edo taldeen artean lehia gertatzen denean berdintasuna baliokidetasunean oinarritzen da. Hau da, bi pertsona edo bi talde lehia egoeran jarritz gero aldeaz aurretik abantailaren bat duena gailen daiteke, aitzitik, desabantailak dituenak lehia galtzeko besteak baino arrisku handiagoa du. Horrela esanda, edonork onar dezake lehia egoeran pertsona eta taldeen arteko berdintasuna (baliokidetasuna?) bermatu beharra dagoela. Berdintasuna izan ezean, lehiaren alborapena eta bazterkeria nagusitzen direlako.

Euskal Autonomi Elkarteak unibertsitate publikoan (UPV/EHU) ikasleen sarrera gero eta mugatuagoa delarik, unibertsitatean sartzeko lehia gorria izaten da unibertsitarigaien artean, ikastetxe batzuetan besteetan baino gehiago. Oro har, unibertsitatean sartzen dira aurreko ikasketetan eta sarre-rako hauta froban notarik handienak lortzen dituztenak. Itxuraz, unibertsitarigaien arteko lehia horretan lehen aipatutako *berdintasuna* emana dago. Hots, ikasleek badakite jakin nota onak lortu behar dituztela nahi dituzten ikasketak —besteen *gainetik*— aukeratu ahal izateko. Honaino ez dago arazorik, araua argi dago, onargarria denentz beste ausia izango bailitzateke.

Egoera ez-normalizatua denean oster, errealitatearen beste ikuspegia ager daiteke. Badakigu jakin EAEko unibertsitate publikoan, ofizialki, euskara gaztelaren parekoa dela, badakigu jakin ere, UPV/EHUko ikastetxe askotan *euskal lerroa* zabaltzen ari dela *erdal lerroaren* aldamenean. Hori horrela, hel diezaigun geure auzi matazaren hariari. Esan dugunez, guk definitutako *lehia* unibertsitatean norberak nahi duen ikastetxean matrikula ahal izatea da. Subjektuak unibertsitarigaiak dira beraz, subjektuen hautaketarako irizpidea edo matrikulako galbahea *unibertsitate aurreko ikasketetan eta sarrerako hauta frogan* lortutako batazbesteko nota.

Testuinguru horretan, unibertsitatean sartzeko lehiaren *euskaldunen eta erdaldunen* artean *berdintasuna* ez dela gertatzen erdietsiko bagenu, nahikoa izango litzateke ezarritako prozedura alboratua dela jakiteko eta berau aldarazteko argudio zorrotza. Zoritzarrez, ez da nahikoa esatea berdintasun hori ez dela gertatzen. Gehienek matrikulatzerakoan ezarritako prozedura, onargarria izan ala ez, *zuzena* dela uste baitute, *berdintasuna* badela hain zuzen ere. Darabilten arrazoia oso eraginkorra da: bi unibertsitarigairen artean euskalduna edo erdalduna izateak ez du bakoitzak lortutako notan eragiten eta, nola matrikula lortutako notaren arabera gautzen den, edozein bi unibertsitarigai baldintza bertsuetan daude matrikula egiteko garaian; norbanakoaren prestakuntza, egindako ahalegiak eta lortutako emaitzak beste ezerk ez du eragiten. Borobila!

Nork esan *euskaldunak* eta *erdaldunak* matrikulatzerakoan baldintza desberdinetan daudenik? Nola argudia dezakegu? Norbanakoaren ikuspegi-

«Agintean dagoen Errektoreak eta bere taldeak ezin har dezake bere eskumenen artean euskarazko irakaskuntza ukatzea, bere eginkizuna kontrakoa baita: euskaraz ematen ez den hori ahalik eta laisterren euskaraz ematea ahalbidetzea. Euskararen erabilera eta euskarazko irakaskuntza eskubidea den neurrian, ikaslegoari dagokio hautatzea ala ez. Unibertsitatea eskubide hori ezagutzeaz gain (Estatutuetan egina da), gauzatzeko baldintzak ezartzea behartuta dago. UPV/EHUko irakaslego elebidunaren hazkuntza ez da nahikoa datorkion erronkari aurre egiteko, ez koantitatiboki, ez kolalitatiboki, irakaslegoaren kalitateari dagokionez. Euskararen normalkuntzarako edozein plangintzak jarraikortasunaren printzipioari atxeki behar dio. Abiaturua edozein delarik, garapen osoa eta eutsigarriari heldu behar dio»

«Pertsona edo taldeen artean lehia ematen denean berdintasuna baliokidetasunean oinarritzen da. Hau da, bi pertsona edo bi talde lehia egoeran jarritz gero aldez aurretik abantailaren bat duena gailen daiteke, aitzitik, desabantailak dituenak lehia galtzeko besteak baino arrisku handiagoa du. Unibertsitatean sartzerako lehiaren euskaldunen eta erdaldunen artean berdintasuna ez dela ematen erdietsiko bagenu, nahikoa izango litzateke ezarritako prozedura alboratua dela jakiteko eta berau aldarazteko argudio zorrotza. Zoritxarrez, ez da nahikoa esatea berdintasun hori ez dela ematen»

tik itxuraz bai talde batekoak zein bestekoak egoera bertsuan daude, horretan dudarik ez dago. Itxuraz esaten dugu, izan ere, unibertsitateko ikas-tetxe askotan matrikula mugatua baita. Mugarik ez balego, jakina, ukaezinezko berdintasuna gertatuko litzateke. Behin argudio mataza aurkezturik, hariaren muturretatik tira dezagun.

Dagoeneko, unibertsitarigaiek euskal edo erdal lerroan matrikulatu behar dutela badakigu. Alabaina, aukera hori behin unibertsitatean sarrera lortu eta gero egin behar dute. Argiago, lehenengo ikaspostua lortu eta gero irakas-hizkuntza hautatu, ikaspostua lortu barik, beraz ez euskara ez ezer. Haatik, unibertsitate barruko egituraren aldez aurretik zehazten dira, batetik orotara zenbat ikasle sar daiteke eta, bestetik, lerro bakoitzean zenbat ikastalde era daiteke. Hori da egoera, orain artean, itxuraz ez dago aldarrikatzen den desberdintasunaren arrastorik.

Auzi honetan estatistika izango dugu lagun. Bere bitartez, itzalean dagoena argitara ekartzen saiatuko gara. Horregatik, ezinbestean, estatistikaren terminologia eta oinarriak erabili behar ditugu. Baliteke irakurleari arrotz egitea, ea bada, ulerbidean jartzeko gai garen.

Hasteko gure lan hipotesiak adieraz ditzagun:

- a priori, lehiaren helmuga ikaspostua eskuratzea izanik, lehiarako baldintzak **banakakoen artean** bertsuak dira, **banakakoen artean** berdintasuna dago, beraz.

- a posteriori, behin matrikula gauzatu eta gero, eraturako euskal eta erdal lerroetako ikastaldearen arteko **baliokidetasuna** lehen aipaturako berdintasunaren islada eta froga da. **Baliokidetasun** hori ez bada ematen, matrikula egiterakoan edo ikas lerroa hautatzerakoan alborapenen bat badagoela erdietsi behar dugu ezinbestean.

Bi lan hipotesi horien artean aurrenak (a priori), eremu metateorikoetara garamatza. Errefusatzea zein onartzea ia ezinezkoa da, horren inguruko eztabaidak gorpil zoro batean murgilduko gintuzke. Azken buru, aurriritzien erreinuan norbera jaun eta jabe baita. Gainera, arestian esan dugu itxuraz matrikula prozeduran unibertsitarigai guztien arteko berdintasuna gertatzen dela. Ez gara gure buruaren kontra hasiko; hipotesi honi buruz askoz gehiago esaterik ez dugu, aurriritziren bat edo beste ez bada. Hala-ber, hipotesi bat besterik ez dela gogoan izan.

Atzeneko hipotesian (a posteriori) dago gakoa beraz. Lan hipotesi horren ildotik, ikasturte jakin batean matrikulaturako euskal eta erdal lerroko ikastaldeek **baliokideak** izan behar dute. Estatistikoki talde horien batzabesteko notak baliokideak direla esango genuke. Hori da, hain zuzen, hipotesi testetan hipotesi nulua (H_0) deitzen dena. Hipotesi nulua (H_0) ukatzekotan, taldeen arteko baliokidetasuna errefusatuko genuke. Uka-

tze horri estatistikan zehatz-mehatz, ordezeko hipotesia (H_1) esaten diogu. Bi hipotesi horiek elkarren kontrakoak eta osagarriak dira, bat ukatuz gero besteari onesten diogu, ez dago hirugarren aukerarik.

Hipotesi estatistikoak zeintzuk diren jakinik, datuak besterik ez ditugu behar lanean jartzeko. Zorionez, datuak baditugu eduki, 1992-93 UPV-EHUko matrikula eta aurreko ikasturteko (91-92) sarrerako hauta frogatik igarotako unibertsitarigaien datuak alegia. Irakurleak xehetasun gehiago nahi izango balu, hein handi batean behintzat, datu horiek *Unibertsitate irakaskuntza eta euskara / Enseñanza universitaria y euskara* (EUS-TAT 1994) argitalpenean aurki ditzake.

Datu horiek erabiliz hipotesi nulua (H_0) baztertu behar dugu. UPV/EHUn ez dago baliokidetasunik matrikulatu berriko euskal eta erdal lerroetako ikasleen artean. Beste era batera, 1992-93 ikasturteko datuen arabera, euskal lerroko ikasleek erdal lerroko ikasleek baino batzazbesteko nota handiagoa daukate eta, ondorioz, matrikula edo ikastaldean eraketan alborapena dago.

Dena den, bildutako datuen aztertzeari lot gatzazkion. Aurrenik eta behin, estatistikan jantzi gabe denari zenbait ohar luzatu nahi geniezaioke:

* Darabiltzagun datuak *populazioarenak* dira. Ez da *lagin* bat beraz. Horrelakoetan *esangura estatistikoaz* mintzatzeak ez du zentzu handirik, osotasunaz ari baikara. Hau da, literalki gertatzen dena bere horretan da, zergatik horrela den jakin ez arren.

* Ikasle kopuruen tamainak direla eta, kalkulu estatistikoak horrek eraginda izaten dira.

* Azterketa edo *test estatistiko*en oinarria eta abiaburua taldea edo multzoa da. Taldearen deskribaketa eta taldeen arteko eraketa helburua da, beraz.

* Elkarren artean erkatu nahi ditugun taldeak edo multzoak ezaugarri bat edo batzuen bitartez bereizturik daude, *euskaldunak/erdaldunak, A ereduak/B ereduak/D ereduak, Gizarte zientziak/Osasun zientziak/...* etab.

* Zorizko taldeak (*laginak*) izango balira, hots, *ausaz* aukeratutakoak, taldeok *berdinak* izango lirateke. Hau da, hain zuzen, analisi estatistikoaren aurreneko suposizioa (*Hipotesi Nulua* - H_0 -). Azken buru, hipotesi nulua arabera ekartzen dugun edozein bi talde zorizkoak (*berdinak*) bailiran hartzen ditugu.

Oharra ohar, estatistika testuliburua idatz genezake baina lan honen xedea bestelakoa da. Datuak ekar ditzagun bada,

«Lehenengo ikaspostua lortu eta gero irakas-hizkuntza hautatu, ikaspostua lortu barik, beraz ez euskara ez ezer. Batetik orotara zenbat ikasle sar daiteke eta, bestetik, lerro bakoitzean zenbat ikastalde era daiteke. Hori da egoera, orain artean, itxuraz ez dago aldarrikatzen den desberdintasunaren arrastorik. Ikasturte jakin batean matrikulatutako euskal eta erdal lerroko ikastaldeek baliokideak izan behar dute»

«UPV/EHUn ez da ematen baliokidetasuna matrikulatu berriko euskal eta erdal lerroetako ikasleen artean. Beste era batera, 1992-93 ikasturteko datuen arabera, euskal lerroko ikasleek erdal lerroko ikasleek baino batazbesteko nota handiagoa daukate eta, ondorioz, matrikula edo ikastaldean eraketan alborapena dago»


I. Taula: 1991-92 ikasturteko unibertsitarigaien banaketa.

	UPV/EHU		BESTE NORABAIT		GUZTIRA	
Hauta frogaren eredua	A	D	A	D	%	
Gaztelaraz	6.039	94	5.590	115	12.108	77,93
Euskaraz	13	1.579	28	1.809	3.429	22,07
Guztira	6.322	1.673	5.618	1.924	15.537	
%	40,69	10,77	36,16	12,38		

Taula horretan hiru aldagai erabili ditugu: unibertsitatea (UPV/EHU edo BESTE NORABAIT), hauta frogaren erabilitako hizkuntza (GAZTELERAZ edo EUSKARAZ) eta unibertsitate aurreko ikasketen hizkuntza eredua (A edo D). Ikasleak (N=15.537), B ereduak ez beste, 1991-92 ikasturteko hauta frogaren parte hartu zuten guztiak dira. Unibertsitate aurreko ikasketak euskaraz burutu zituztenak (D ereduak) % 23,15a ziren baina, UPV/EHUn matrikulatu zirenen artean D ereduaren proportzioa urriagoa zen (1.673 ikasle, ikaslearen % 20,93a).

Aurreko taulan ikusten denez, D ereduaren ikaslearen erdia baino gehiagok (%53,49a) UPV/EHUn baino beste norabait joaten da. UPV/EHU ikasle hori bereganatzeko gai izango balitz, euskal lerroaren tamaina ikaragarri haz liteke, are gehiago datozen ikasturteetan D ereduaren proportzioak areagotzeko joera duela aintzat hartzen badugu.

Edozelan ere, A ereduaren artean joerak bestelakoak dira; gehiengoa (% 52,95a) UPV/EHUn doan bitartean, berauen proportzioa ikasturte ikasturte urritzen ari da. Ikaslearen bilakaera ahalik eta argien ikusteko jario diagrama oso tresna baliagarria gertatzen zaigu.



1. Diagrama: Ikaslearen bilakaera UBItik UPV/EHUn (datu iturria: EUSTAT 94).

Path diagramak ikasleen unibertsitatean matrikulatzeko ibilbidea islatzen du. Badakigu jakin abiaburuan (UBI) bi multzo berezitueta banatuta daudela, A eta D eredukoak alegia. Unibertsitatearen atarian daudela os-tera, bi multzo horiek nahastu egiten dira, orduan unibertsitateak (ikaste-txe bakoitzak) batazbesteko nota oneneko ikasle kopuru jakinak aukera-tzen ditu eta, behin matrikulaturik, euskaraz ikasteko aukera baldin ba-dago, ikasleek euskal edo erdal lerroa hauta dezakete.

Zirkulu bakoitzean multzo bakoitzari dagokion proportzioa idatzi dugu. Horren arabera, UPV/EHUn euskaraz ikasten ari direnen proportzioa aurreko ikasketetan baino txikiagoa dela esatea ez da hipotesi bat, erreali-tate gordina da. Hau da, ez gaude estimazio estatistiko baten aurrean, benetako gertaeraren aurrean baizik. Hori horrela izanda ordea, zergatik den jakin nahi dugu. Datuak ikusita bateon batek esango balu UPV/EHU espero daitekeena baino erdaldunagoa dela, zuzen ibiliko litzateke beraz. Alabaina, datuak datu, euskaldunak benetan bazterturik daude UPV/EHUn?

EAEko unibertsitate publikoak euskaldunak *baztertzen* dituela *inferentzia* ausartegia eta arriskutsuegia dateke oraindik. Haatik, bi multzoen artean berdintasuna *de facto* ez dela gertatzen ukaezina da. Izan ere, multzoak baliokideak izatekotan ez zitezkeen desberdintasunik izango, ez behatu-tako proportzioetan ez eta multzo bakoitzaren banaketen artean ere. Bai-na badago egon diferentziarik, estatistikoki esanguratsuak eta, gure aburuz, substantiboki adierazgarriak.

Euskaldunontzat, aipatu desberdintasun hori sarri, frogatu beharreko zer-bait baino bizipena da. Substantiboki euskaraz jakiteak, euskaraz ikasia izateak, oro har, euskaldun izateak eta horrek dakartzan berezitasun so-zial eta kulturalak nahikoa izan beharko luke, berez, *populazio* bat dela onartzeko. Haatik, nola euskaldunen eta erdaldunen hezkuntza sistema bera den, kultura bat behintzat, amankomunean daukaten, elkarren na-hasian bizi diren eta, batez ere, *agintearen arabera* maila bereko taldeak diren, oso zaila gertatzen da haien arteko bereizketa antzematea.

Euskaldunak eta erdaldunak *populazio* banatakoak badira, desberdinak badira hain zuzen, orduan, aldarrikatutako berdintasuna itxurazkoa da. Horrek azal litzake EAEko unibertsitate publikoan behatutako desorekak. Beste era batera, hori berori izan daiteke *alborapenaren sorburua*.

Askorentzat, hau guztia eztabaidagai antzua izanagatik edo, *kutsu poli-tikoa* badu ere, berebiziko garrantzia dauka ikerkuntzan eta, batik bat, gizarte antolakuntzan. Jakina denez, Euskal Herriko gizarte zientzietako ikerketa ugari (hezkuntza, hizkuntza, soziolinguistika, gizarte psikolo-gia, etab.) bi talde horien arteko diferentzia esanguratsuak aurkitu dituz-te. Nolanahi ere, guztietan abiaburu inplizitu bera izan da; *populazio* bereko subjektuak direla onartzea. Hau da, ikerketa guztien nondik-no-rakoa bera izan ohi da. Honela esan genezake: *populazio* jakin batean (es-kola, herria, gazteria,...) subjektu batzuk euskaldunak dira, gainontzekoak

«Unibertsitate aurreko ikasketak euskaraz burutu zituztenak (D eredukoak) % 23,15a ziren baina, UPV/EHUn matrikulatu zirenen artean D ereduko en proportzioa urriagoa zen (1.673 ikasle, ikaslegoaren % 20,93a). D ereduko ikaslegoaren erdia baino gehiagok (%53,49a) UPV/EHUn baino beste norabait joaten da. A ereduko en artean joerak bestelakoak dira; gehiengoak (% 52,95a) UPV/EHUn doan bitartean, berauen proportzioa ikasturtez ikasturte urritzen ari da. UPV/EHUn euskaraz ikasten ari direnen proportzioa aurreko ikasketetan baino txikiagoa dela esatea ez da hipotesi bat, errealitate gordina da»

«EAEko unibertsitate publikoak euskaldunak bazterten dituela inferentzia ausartegia eta arriskutsuegia dateke oraindik. Haatik, bi multzoen artean berdintasuna de facto ez dela ematen ukaezina da. Euskaldunak eta erdaldunak populazio banatakoak badira, desberdinak badira hain zuzen, orduan, aldarrikatutako berdintasuna itxurazkoa da»


ordea ez; subjektu guztiak baldintza bertsuetan daudela ezagutuz, aldagairen jakin batean diferentzia esanguratsuak baleude, aipatu taldeen arteko bereizketari egotzi beharko genizkiokeen.

Ikusten denez, proposamen formal horretan diferentziak izan daitezkeela onartzen bada ere, ez da sekula onartzen populazio desberdinak izan daitezkeenik. Ikuspegi metodologikotik, populazio desberdinetakoak izateak oster, diferentzia frogatu behar ez izatea dakar, edo, aitzitik, balizko diferentziak ikergaia izateari utziko lioke eta, bere orde, populazioen arteko amankomuntasuna jakingaia izango genuke.

Formalki, honela adieraz genezake: Erdaldunak eta euskaldunak deitutako populazio bi ditugula, eta aldagai jakin batean (eskola errendimendua, jarraera, hizkuntza gaitasuna,...) behatutako diferentziak populazio desberdinak izateari dagozkiola funtsean. Diferentziarik ez balego berriz, bi populazioei eragiten dien faktore edo faktore multzoen ondorio gisa ulertzen dugu, baina, horrela izanda ere, populazio desberdinak izateari ez diote uzten.


Arestian aipatutako datuei lotzen bagatzaizkie, A eta D hizkuntza eredu-tako unibertsitariagaien arteko desberdintasun horiek adieraz ditzakegulakoan gaude. Har dezagun bada, 1992-93 ikasturtean EAEko unibertsitate publikoan sartzeko zeuden A eta D eredu-tako ikasle guztien batzbesteko nota (sarrerako nota) eta ikus dezagun nola banatzen diren:

A EREDUKO IKASLEGOA



2. Diagrama: A hizkuntza ereduko ikasleen banaketa sarrerako notaren arabera

D EREDUKO IKASLEGOA



3. Diagrama: D hizkuntza ereduiko ikasleen banaketa sarrerako notaren arabera

Aurreko bi histograma horietan A hizkuntza ereduiko ($N=11.227$) eta D hizkuntza ereduiko ($N=3.303$) ikasleen banaketak ikus ditzakegu. Ordenatuetan maiztasuna adierazita dago, zenbat ikasle dagoen alegia. Kontutan har, ordenatuen eskala desberdina dela kasu bakoitzean, A ereduikoan gehienez 1.000 eta D ereduikoan 500 gehienez ere. Kasu bakoitzean 32 lauki luzeek ikasle kopuruak adierazten dituzte. Hau da, 5 eta goren mailako noten arteko 32 tarte proportzionaletan ikasleak nola multzokatzen diren.¹

Histogramaren abzisetan (*sarrerako nota*), ikasleek UPV/EHUn sartu ahal izateko lortutako nota dago. Edozelan ere, notarik txikiena aprobatuari dagokio. Ageri denez, A hizkuntza ereduikoek lortutako batazbesteko nota ($m=6,17$) txikiagoa da D ereduikoek lortutakoa ($m=6,33$) baino. Alabaina, desbidazio estandarra, batean zein bestean ($s=0,76$) bera da.

II. Taula: A eta D hizkuntza ereduetoako unibertsitarigaien banaketetako parametroak.

ESTATISTIKOAK	A HIZKUNTZA EREDUKOEN HIZKUNTZA EREDUKOEN	D HIZKUNTZA EREDUKOEN HIZKUNTZA EREDUKOEN
MEDIANA	6,020	6,210
MODA	5,740	5,980
ZORROZTASUNA	0,131	-0,245
ASIMETRIA	0,803	0,569
IBILTARTEA	4,870	4,850

1) Histogramak SPSS programa bildumaren bitartez sortuak dira.

EAEko unibertsitate publikoak ezarritako prozedura dela eta, ikasleek matrikularekin batera egiten dute hizkuntza aukera. Hori horrela, unibertsitatean matrikulatzen diren euskaldunen proportzioa unibertsitarigaien arteko proportzio bertsua da. Hori eragin estatistikoa besterik ez da. Auzia ez da soilik unibertsitatearen eskaintzaren nahikotasuna, euskaldunen matrikula baldintza soziolinguistikoen menpe izatea baizik. Gerta liteke ikasle jakin batean irakaslego euskalduna eta azpiegitura nahikoa izatea 150 ikasle euskaldunentzat eta, hala ere, 100 besterik ez izatea, egoera soziolinguistikoak gainontzekoen matrikula eragozten duelako. Horrelakoetan, jakina, gainontzeko 50 ikasle erdal lerroetakoak izango lirateke, egoera soziolinguistikoak erdaldunen aldekoa delako. Unibertsitateak arautzen ez duena, hizkuntzen arteko ukipen egoera desorekatuak ezartzen du.

Hotz-hotzean ikusita, unibertsitateak ikasle kopuru jakin baterako irakaslegoa eta oinegitura prestatzea eta ikasle kopuru horren matrikulazioa zoriaren menpe jartzea utzikeria da, zerbait gogorrago ez esatearren. Adibidez, demagun fakultate batean 300 ikasle kopuruko matrikula mugaketa ezartzen dutela, erdal lerroko bi talde eta euskal lerroko talde bakarrean banatzeko. Horrela izanik, fakultate horretan hiru ikastalde horietarako irakaslego eta oinegitura nahikoa dagoela pentsatzea arrazoizkoa da, beraz. Hiru ikastaldetan 300 ikasle orekatsu banatuz gero, ehunbana ikasleko hiru ikastalde dauzkagu. Aritmetika gehiegi jakin gabe, berehala konturatzen gara euskal lerroaren proportzioa heren batekoa dela ($p=1/3$). Irizpide aritmetiko hutsari lotuz, fakultate horretan euskal lerroan gehieenez 100 ikasle matrikula daitezke. Edozelan ere, indarrean dagoen ikasleen hautaketa eta matrikulazio prozedura dela bide, fakultate horretan, oro har, ikasturtero 300 ikasle berri matrikulatuko dira, baina zenbat erdal taldeetan eta zenbat euskal lerroan zoriaren menpe dago. Ez da ikasle euskaldunen borondatea faktore erabakiorra, izan ere, hizkuntza (euskara/erdara) matrikula lortu ondoren.


III Taula: A eta D hizkuntza ereduak unibertsitarigaien banaketa lortutako noten arabera.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Guztira
	5-5,43	5,44-5,66	5,67-5,85	5,86-6,04	6,05-6,24	6,25-6,44	6,45-6,68	6,69-7,01	7,02-7,44	7,45-10	
n (A eredu)	1834	1461	1297	1142	1069	968	870	887	816	883	11227
%lerroko	16,3	13,0	11,6	10,2	9,5	8,6	7,7	7,9	7,3	7,9	100,0
%zutabeko	83,3	81,0	80,3	77,2	75,2	77,0	72,7	73,9	68,6	75,1	76,46


n (D eredu)	356	342	319	337	352	290	327	313	374	293	3459
%lerroko	10,8	10,4	9,7	10,2	10,7	8,8	9,9	9,5	11,3	8,9	100,0
%zutabeko	16,2	29,0	19,7	22,8	24,8	23,0	27,3	26,1	31,4	24,9	23,55

Aurreko taula horretan, unibertsitarigaien populazioak unibertsitatean sartzeko notaren hamar tartetan banatu ditugu. Tarte horiek berdinak dira A hizkuntza ereduko zein D hizkuntza ereduko unibertsitarigaientzat. Populazioak baliokideak izango balira, tarte bakoitzean proportzio bera edo antzekoa itxaron genezake (% lerroko). Ageri denez, ez da horrela. D hizkuntza eredukoak uniformeago banatzen dira A hizkuntza eredukoak baino. Hobeto ikus daiteke 3. eta 4. irudietan.

A EREDUKO IKASLEGOA



D EREDUKO IKASLEGOA



3. eta 4. irudiak: ikaslegoaren banaketak deziletan

«EAEko unibertsitate
publikoak ezarritako
prozedura dela eta,
ikasleek matrikularekin
batera egiten dute
hizkuntza aukera. Hori
horrela, unibertsitatean
matrikulatzen diren
euskaldunen proportzioa
unibertsitarigaien arteko
proportzio beretsua da.
Auzia ez da soilik
unibertsitatearen
eskaintzaren
nahikotasuna,
euskaldunen matrikula
baldintza
soziolinguistikoen menpe
izatea baizik.
Unibertsitateak arautzen
ez duena, hizkuntzen
arteko ukipen egoera
desorekatuak ezartzen
du»

Beste alderditik, nota tarte bakoitzean euskaldunek daukaten pisua ikus daiteke (% zutabeko). Euskaldunek lortzen duten proportziorik handiena %41,4koa da, 8. tartearen hain zuzen. Oro har, benetan matrikulatzen direnen artean itxaron daiteke euskaldunen proportzioa %23,55koa da. Esan dezagun, berriz ere, aukera ez dagoela euskaldunen baitan.

ONDORIOAK

Honaino adierazitako guztia hitz laueta ekarrita hurrengo puntuotan laburbilduko genuke:

1. Unibertsitateko euskal lerroaren garapena egoera soziolinguistikoaren —zoriaren— menpe dago. Euskal lerroan matrikulatutakoen proportzioa egoeraren arabera da beraz.
2. Unibertsitarigaien artean —subjektuen artean, alegia— berdintasun printzipioa egoten bada ere, taldeen artean ez da berdintasunik gertatzen. Ikasle euskaldunak (euskal lerrokoak zehatz-mehatz) besteak baino baldintza okerragotan daude objektiboki. Desabantaila hori egoera soziolinguistikoaren desorekak sortarazten duen ondorioa da, gertaera estatistikoa dela esan genezake, arrunt ezaguna eta erraz zuzentzekoa beste alderditik.
3. Horiek horrela, euskal lerroaren garapena zoriaren menpe izateak unibertsitatearen hizkuntza politikaren hutsune lazgarria adierazten du. Horren ordainez euskal lerroaren hazkuntza ez dagokio unibertsitateari, ez inongo planifikazioari ezta unibertsitarigaien eskakizunari, egoera soziolinguistikoaren garapena baizik.
4. Azken buru, unibertsitatearen iharduerak —edo iharduera ezak— alderdi honetan hizkuntzen arteko asimetria areagotzea besterik ez dakar. Ez da soilik unibertsitateak ez duela inolako ekarpenik egiten euskararen normalkuntza —soziolinguistikoan— bidean, baizik eta bere baitan gizartearen gertatzen diren hizkuntzen arteko desorekak jaso eta handitu egiten dituela.
5. Euskal lerroaren garapen bizia eta kalitatezkoa nahi bada, ezin utz daiteke faktore kontrolaezinen menpean. Ikasketa planak, numerus clausus, titulazioak, etab. planifikatzen diren neurri berean —zorrotzean nahia go— planifikatu beharko litzateke euskal lerroaren garapena. Hau da, ikasketen artean lehentasunak finkatu, euskal lerroko irakaslearen preskakuntza planak diseinatu eta kudeatu, eraketa arazoak bideratu, titulazio euskaldunak ezarri, etab.